



EDIKTUA

ENEKA MAIZ ULAIARREK, ETXARRI ARANAZKO ALKATEORDEA NAIZENEZ,

JAKINARAZTEN DUT:

Udal honek ondoko zergen erreziboak kobratzera pasatuko dituela:

* 2017/2. SEIHILABETEKO URA

Ordaintzeko borondatezko epea aurtengo APIRILAREN 17AN bukatuko da. Aipatu epe hori pasata, ordainagiriak Agentzi Exekutibora bidaliko direla, kobratzea premiamendu-bidetik burutzeko, Tributuen Foru Lege Orokorraren 117. artikuluan ezartzen diren errekaruekin.

Ordainketak helbideratuak dituztenei bere borondatezko epearen azkeneko egunean, kontuetan kargatuko zaie, eta gainerakoek Etxarri Aranazko banketxe batean ordaindu beharko dute.

Helbideraketa berriak edo aldaketak eskatzeko azkeneko eguna apirilaren 10a izango da.

Etxarri Aranatz, 2018ko martxoaren 1an.

ALKATETZA
Eneka Maiz Ulaiar

